

Euskal Herriko egunkarien irudi berria

Jose Inazio Armentia Vizuete

EHUko Informazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Leioa

Azken urteotan Euskal Herriko egunkari gehienek eraberritze-prozesu bati ekin diote. 70eko hamarkadaren amaieran kazeta batzuen teknologia eta diseinua erabat zaharturik bazen ere, 90eko hamarkadan Euskal Herriko prentsa beste garaietako zamak alde batera utziz teknologia berrien bidean buru-belarri sartu da. Eraberritze-prozesu honen zenbait adibide *El Diario Vasco*, *El Correo* eta, batez ere, *Eginen* azken berdiseinuetan daukagu. *Egin*-ek, Katalunian *La Vanguardia*-rekin gertatu zen bezala, gauetik egunera irudia arras berriturik aurkeztu zuen, zeinean kolorearen erabilpena oso elementu inportantea bihurtu baitzen.

In the last years, the main newspapers in the Basque Country have gone through an important renovation process. In the decade of the 70's many publications still showed an old page-design and used obsolete technology. However, in the 90's the Basque press began to change profoundly. The new image of *El Diario Vasco*, *El Correo* and, above all, *Egin* could be proof of these news tendencies. The use of news elements, such as color, graphics and new typefaces are some of the characteristics of the modern newspapers.

Euskal Herrian, 1994. urteko hasieran zortzi egunkari inprimatzen ziren. Kopuru honetatik, hiru -*El Correo Español*, *Deia* eta *El Mundo del País Vasco*- Bizkaian argitaratzen ziren; beste hiru -*El Diario Vasco*, *Egin* eta *Euskaldunon Egunkaria*- Gipuzkoan; eta bi -*Diario de Navarra* eta *Navarra Hoy*¹- Nafarroan. Arabak eta Iparraldeko herrialdeek ere ez zuten egunkari propioirik. Arabaren kasuan, beste herrialdetako egunkari batzuek zenbait orrialde eskaintzen diote lurralde honi. Aipatutako egunkari-zerrendari neuk beste izen bat gehituko nioke: *Sud Ouest*. Bordelen argitaratzen den kazeta honek egunero "Pays Basque" izeneko edizioa banatzen du Ipar Euskal Herrian. Hau dela eta *Sud Ouesten* orrialde-kopuruaren erdia -gutxi gorabehera- Iparraldeko informazioz beterik dago.

Bederatzi egunkari hauen ezau-garriak aztertzerakoan, begibistan geratzen den lehenengo gauza hauxe da: salbuespen bakar batekin -*Euskaldunon Egunkariarena* hain zuzen- Euskal Herriko ia egunkari guztiak erdaraz idatzita daude. Antzinatasuna aintzat hartzen badugu, bi talde bereiz genitzake: alde batetik, Francoren garaian argitaratzen ziren agerkariak (*El Correo Español*, *El Diario Vasco* eta *Diario de Navarra*); eta beste aldetik, Franco hil ondoren ateratako kazetak (*Deia*, *Egin*, *Navarra Hoy* eta *Euskaldunon Egunkaria*). Beraz, lehenengo taldean tradizio handiko egunkariak dauzkagu, eta bigarrenean, kazeta gazteak iraganeko zamarik gabe. Dударik gabe, *Sud Ouest* lehendabiziko taldean legoke, 1944. urtean jaio baitzen.

1. *Navarra Hoy* aurtengo otsailean desagertu zen. Hilabete bat beranduago, beronen lekua *Diario de Noticias* egunkari berriak bete zuen.

Orain dela 10 urte, Euskal Herriko egunkari gehienen irudia erabat zahartuta zegoen. Oraindik 1983.ean *Diario de Navarra* izara edo maindire izeneko formatoa erabiltzen zuela gogoratzea baino ez dago kazeta gehienak zer egoeratan aurkitzen ziren ikusteko. Beste adibide bat: 1982. urterarte *El Correo Español*ean inprimaketa tipografikoa erabiltzen zen. Sistema honekin argazkien kalitatea paperaren gainean oso kaxkarra da. *El Diario Vasco*k, bere aldetik, bere maindire-formatoa 1977. urterarte mantendu zuen.

Hiru egunkari hauen eraberritze-prozesuan oso eragin handia izan zuen Franco hil ondorengo kazeta berriak agertzeak. Bai *Deia*, bai *Egin*, baita *Navarra Hoy*k ere teknologia berriak erabili zituzten hasiera-hasieratik bere inprimatze-lantegietan. Euren diseinua freskoagoa zen eta offset-a erabiltzearen poderioz inprimaketaren kalitatea bikaina zen.

Azken hamabost urteotako egunkarien irudiaren eboluzioa aztertzen badugu, argi eta garbi bi epealdi bereiz daitezke. Lehendabiziko epealdia 70eko hamarkadaren azken urteetan eta 80eko hamarkada osoan kokatuko genuke. Urte hauetan Euskal Herriko prentsak eraberritze-prozesu sakona jasan zuen, bai teknologiaren aldetik, bai diseinuaren aldetik, baita orrialde eta atalen antolaketaren aldetik ere. Euskadi, Kultura edo Gizartea bezalako sekzio berriak agertu ziren eta euskara, oso proportzio txikian bazen ere, zenbait egunkariren orrialdeetan agertu zen. Diseinuaren aldetik, "tabloid" formatoa

nagusitu zen kazeta guztietan eta tipografian Times eta Helvetica moduko letra-motak egunkari gehienetan erabili ziren.

Eraberritze-prozesu honetako bigarren zikloa 90eko hamarkadan kokatuko litzateke. Aipatutako epealdian berrikuntzarik nabarmenena koloreraren erabilpena da. Arlo honetan *Deia*, *El Diario Vasco* eta *Egin* ditugu aitzindari. *El Correo Español*ek iragan urriaren 15.ean bere maketa berria aurkeztu zuen. Kolorea eta tipografia berri bat erabili arren, *El Correo*ren berdiseinua ez da espero zen bezain sakona izan. *Sud Ouestek*, bere aldetik, normalean publizitatean soilik erabiltzen du kolorea.

Artikulu honetan Euskal Herriko prentsaren irudiaren bilakabidea aztertuko dugu. Lehenengo eta behin, ohizko egunkarien –*El Correo Español*, *El Diario Vasco*, *Diario de Navarra* eta *Sud Ouestena*, hain zuzen– eraberritzea ikusiko dugu. Bigarren tokian, egunkari berrien ezaugarriak ikustatuko ditugu. Azkenik, egunkarien irudi berriaren adibide batean geldituko gara: *Eginen* berdiseinuan, hain zuzen; egunkari honen irudi-aldaketa erabat ikusgarria izan delako.

Eredu zaharren eraberritzea

Francoren garaiko egunkari inportante askok ez ziren gai egoera politiko berrian moldatzeko. *La Gaceta*

del Norte, *Norte Express* edo *El Pensamiento Navarro* bezalako kazetak, arazo ekonomikoak zirela medio, itxi egin ziren. Beste alde batetik “Cadena del Movimientoko” zenbait egunkari –*La Voz de España*, *Unidad*...– ere desagertu egin ziren.

Hala ere, beste egunkari batzuek aldatzen jakin zuten haize politiko berriak nondik nora zihozten ikustean. *El Correo Español*, *El Diario Vasco* eta *Diario de Navarra* esandakoaren hiru adibide izango genituzke. Kazeta hauek buruturiko aldaketak ez dira bakarrik geratu edukinaren arloan; agerkarien irudi orokorrera ere iritsi dira. Honetarako ezinbestekoa izan da azpiegitura teknikoa eraberritzea eta, bide batez, diseinu berriaz hornitzea.

El Correo Español-El Pueblo Vasco 1910. urtean jaio zen² *El Pueblo Vasco* izenarekin. Gerra zibilaren ondoren bere gaurko izena hartu zuen Bilboko egunkari honek. Urte luzeetan zehar *El Correo* oso konkurrentzia handia mantendu zuen *La Gaceta del Norterekin*, Bizkaiko lehenengo egunkaria izateko. Franco hil eta gero, *El Correo* suertatu zen garaile zeingehiagoko honetan, *La Gaceta* 1984. urtean itxi egin baitzen. Orduan *El Correo*ek 136.646 ale saltzen zituen³.

1965. urterarte *El Correo*ek maindire-formatoa mantendu zuen⁴, eta 1982. urterarte bere imprimaketan errotatiba tipografikoa erabiltzen zen. Azken urte honetan Bilboko egunkariak diseinua aldatu zuen, maketa

2. Ibarra, E., (1985): *El Correo Español-El Pueblo Vasco: Un periódico institución (1910-1985)*. El Correo Español-El Pueblo Vasco, 11. orr., Bilbo.

3. OJDren datuak,(1993.eko lehen hiruhilekoa): *Guía de Medios* aldizkarian argitaraturik.

4. Sanchez-Taberner, A., (1989): *El Correo Español-El Pueblo Vasco y su entorno informativo*. Servicio de Publicaciones de la Universidad de Navarra, 365. orr., Iruñea.

berriaren egilea Alberto Torregrosa izan zelarik. Orduan *El Correo* sei zutabeko pauta erabiltzen zuen. Orduz gerostik, *El Correo*ren irudiak beste hiru aldaketa izan ditu. Lehen-dabizikoa 1988. urtean suertatu zen. Bilboko kazetak 6 zutabeko pauta utzi eta 5 zutabekoa erabiltzen hasi zen. Beste aldetik, aurreko urteetako diseinu irregularra baztertu eta moldaketa erregularra hautatu zen. *El Correo*ren azken itxura-aldaketa 1991.eko ekainean burutu zen, bere tipografian familia berri batzuk erabiltzean. Adibidez, titularretan Swiss 721 (Helveticaren bariante bat) deritzon familiaz baliatzen zen egunkari hau. Normalean orrialdearen titular nagusia beltzez idatzita zegoen eta beste titularrak erdi-beltzez, horrela kontraste bat sortzen baitzen. Testuetan Century deituriko familia erabiltzen zen.

*El Correo*ren azken berdiseinua 1993.eko urriaren 15ean gauzatu zen. Urte honetako udaberrian inprimatzeko tresneria Zamudioko lokal berrietara eraman zen. Asko espero zen *El Correo*ren diseinu berritik, kontutan edukita bere prestakuntzan Mario García diseinugile iparramerikar ospetsuak hartu zuela parte. Azkenean aldaketak minimoak izan dira, eta García-ren aholkuak ez dira ia aintzakotzat hartu.

Orain kolorea egunero sartzen da lehenengo orrialdean, eta tipografiari dagokionez, zenbait berritasun ere nabarmen dago. Titularretan, lehengo Swiss familia desagertu, eta bere ordez, Franklin Gothic deritzon 1905.

urtean sortutako beste serifgabeko bat erabiltzen da. Testuetan Century letra-mota mantentzen da, eta azpitolarrretan Swiss tipoak.

Seguraski, aldaketarik nabarmenena *El Correo*ren mantxetan aurkitzen da. Bere ohizko logotipoa –lauki gorri baten gainean, *El Correo Español-El Pueblo Vasco* hitzak negatiboan– txikitu egin da, eta bere ordez *EL CORREO* izenak –maiuskulaz eta Frutiger tipoan– protagonismoa bereganatzen du.

Donostiako *El Diario Vasco* 1934. urtean jaio zen. Francoren garaian *El Diario* eta *La Voz de España* zein-gehiagoka ibili ziren Gipuzkoako irakurleak bereganatzeko. 1981. urtean UCDren gobernuak *La Voz* itxi zuen, *El Diarioren* nagusitasuna bermatuz. 1992. urtean *El Diario Vascoren* zabalkundea 93.512 alekoa zen⁵.

Azken urte hauetan, *El Diarioren* eraberritze-prozesua abiadura handiz bideratu da. Oraindik 1977. urtean Gipuzkoako kazeta honek “maindire formatoa” mantentzen zuen. “Tabloid” formatoarekin batera, kazeta honek bere inprimatze-sistema aldatu zuen, tipografiatik offset-era pasatuz. José María Caminos-ek azaltzen duenez, *El Diarioren* eraberritze-prozesua 1988. urtean nabarmendu zen⁶. Azken urte honetan *El Diarioren* irudia gaurkotu egin zen: informazioak hobeto tajutu ziren; aurretitularrak erabili beharrean, azpitolarrak sartu ziren; tipografia aldatu zen...

5. OJDren datuak.

6. Caminos, J. M., (1993): Tesi doktora: *Transformaciones de la prensa en Guipúzcoa durante la transición política*. Euskal Herriko Unibertsitatea, 451. orr.

Zaharberitze-prozesuaren azken urratsa 1991 urtean eman zen, berrikuntzarik ikusgarriena kolorearen erabilpena izan zelarik. Diseinu berriaren egilea Alberto Torregrosa izan zen. Eredu berrian Frutiger letra-mota sartu zen titularretan. Egunkariaren ia beste elementu guztietan Centennial familia erabiltzen da, estilo diferenteetan (borobila, makurra, beltza, etab.).

El Diariok 5 zutabeko pauta bat erabiltzen du, zutabe bakoitzaren zabalera 10,6 puntukoa delarik. 60 eta 80 zutaberen artean ditu.

Hego Euskal Herrian *Diario de Navarra* izan da eraberritze-prozesuan sartu den azken egunkaria. Iruñeko egunkaria 1903. urtean kaleratu zen eta OJDren arabera 1992. urtean 60.274 ale saltzen zituen. *Diario de Navarra* oso irudi zaharra mantendu zuen 80.eko hamarkadaren erdirarte, 1985. urterarte hain zuzen, “maindire” formatoaren ordeztu “tabloid” formatoa hartu zuenean. Urte hartan egunkaria goitik behera berdiseinatu zen, eta maketa berriaren egilea Mario García Iparramerikarra izan zen.

Diario “zaharra” eta “berria” konparatuz gero, formatoaz gain elementu ugari aldatu zirela begibistan dago. Faxikuluetan banatzen zen kazeta izatetik atal bakarrean banatzen zen egunkari izatera pasatu zen. Beste alde batetik, moldaketa modularra erabiltzen hasi zen eta sistema tipografikoa laga zen, offsett-ez imprimatzeko.

1985.eko berdiseinutik gaur arte Iruñeko egunkariak ez du ia aldaketa

nabarmenik sartu bere orrialdeetan. Orain kazetaren neurriak hauexek dira: 293 x 410 mm. Orrialdea 10,6 zizeroko 5 zutabetan banatzen da. Bera bezalako egunkarietan normala denez “Navarra” deituriko sekzioa egunkariaren mardulena da.

*Diario de Navarra*ren tipografia oso konbentzionala da. Horrela, titularretan eta azpititularretan Times New Roman letra-mota erabiltzen da, Kultura eta Televisión/Espectáculos sekzioetan izan ezik, non Univers familia erabiltzen baita. Testuetan ere Univers familia erabiltzen da. Oraingoz, *Diario de Navarra* ez du kolorea sartzen bere orrialdeetan.

Azkenik, atal honekin bukatzeko, *Sud Ouest*en kasua aztertuko dugu, Bordelen argitaratzen den egunkari honek –gutxi gorabehera– Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan *El Correo Español*, *El Diario Vasco* eta *Diario de Navarra* betetzen duten paper berbera jokatzen du Iparraldeko herrialdeetan. *Sud Ouest* 1944. urtean jaio zen Bordele hiria askatu ondoren. 1992. ean *Sud Ouestek* 349.000 ale saltzen zituen⁷, eta Frantziako bosgarren egunkaririk salduena zen.

Proporzionaliki, aztertutako egunkarien artean, *Sud Ouest* da, dudarik gabe, herrietako informazio gehien ematen duen kazeta, bere 24 orrialdetako 11tan albiste lokalak sartzen baitira. Hegoaldeko egunkariekin konparatuz gero *Sud Ouest* arras desberdina da. Hasteko bere formatoa ez da “tabloid”, “maindire” baizik. Bere neurriak 336 x 515 mm.-koak dira. Agerkari honen pauta ere diferentea da. Orrialdea 8 zutabetan

7. *L'Echo de la Presse*. 41. zenb.

zatitzen da, eta zutabe bakoitzak 9,6 zizero ditu.

Bordeleko kazetaren tipografia ez da batere ohizkoa suertatzen Hegoaldeko egunkarietan. *Sud Ouestek* gehien erabiltzen duen letra-mota Rockwell da. Rocwell familia "egiptoar" taldearen barnean sailkatzen da. Bere marren lodiera ez da aldatzen eta bere erremateak errektangeluarrak dira.

Eskuarki, *Sud Ouestek* ez du kolorea erabiltzen informazioetan, bai, ostera, publizitatean.

Egunkari gazteen irudia

Franco hil ondoren, testuinguru politiko berriaren itzalean, hainbat egunkari agertu ziren. Batzuk *-Deia, Egin, Egunkaria, El Mundo del País Vasco-* gaur arte iritsi dira, beste batzuk, berriz, *-Tribuna Vasca, La Voz de Euskadi, Gaur Express,* eta orain dela hilabete batzuk *Navarra Hoy-* bidean geratu dira.

Egunkari berri hauek zama politiko nahiz teknologikotik libre jaio ziren eta euren diseinua, kasu gehienetan, oso berritzaileak izan ziren. Gainera, kazeta hauek hasiera-hasieratik offset sistema erabili zuten euren inprimaketan. Kasu guztietan, hautaturiko formatoa "tabloid" izan zen.

Sistema politiko berrian Euskal Herrian kaleratu zen lehendabiziko egunkaria *Deia* izan zen. Bere lehen alea 1977.eko ekainaren 8an agertu zen. Aste bat geroago Franco osteko lehenengo hauteskundeak burutzen ziren. Egunkari berria Bilbon inprimatzen zen. Bere lehenengo 8 urteetan, *Deiaren* diseinua oso aldakorra izan zen. Titularretan,

adibidez, maiuskulaz zein minuskulazko letrak konbinatzen ziren.

Egunkariaren irudiari egonkortasun minimo bat emateko, 1985. urtean diseinu berri batez arduratzeko agindua Inglaterrako David Hilman diseinugile famatuari eman zion *Deiako* zuzendaritzak. Esan beharra dago David Hilman Europako diseinugilerik onenetariko delako. Berorrek berdiseinatu zuen Londresko *The Guardian* 1988. urtean.

Hillmanen ekarpenik garrantzitsuena Clearface familia tipografikoarena izan zen. Estatu espainiarrean oso gutxitan erabiltzen den familia hau *Deiaren* ia elementu guztietan agertzen da: beltzez titularretan, makurraz azpitarretan, borobilez testuetan, etab. Beste aldaketa bat zutabe-kopuruarena izan zen. Atal honetan *Deiak* joera berrien aurka jokatu zuen. Estatuaren egunkari gehienek 5 zutabeko pauta hartzen zuten unean, *Deiak* 5ekoa utzi eta 6koa onetsi zuen. Hau dela eta, *Deiaren* zutabearen zabalera beste egunkariena baino estuagoa da (8,6 zizero inguru). Egunkariaren neurriak 285 x 400 mm.-koak dira.

Berrikuntza teknikoei dagokienez, azken urteotan *Deiak* bi aldaketa nabarmen burutu ditu. Alde batetik, kolorez inprimatzeko offset-errotatiba berri bat erosi du. Beste alde batetik bere idazgela Macintosh ordenagailuz hornitu du, zeinekin posible baita orrialde osoa pantailan moldatzea eta argazkiak digitalizatzea.

Orain dela bi urte *Deia* kolorea erabiltzen hasi zen eguneroko kazetan (aldez aurretik noizbehinka gehigarrietan sartzen bazuen ere). Ez dago jakiterik zehatz-mehatz kolorearen

erabilpenak egunkariaren salmentak ugaldtu dituenentz, orain *Deia* OJDtik at dagoelako. Enpresak berak eman-dako datuen arabera –oso eztabai-dagarriak, beraz– 1991. urtean 48.263 ale saltzen zituen.

Deia agertu eta 3 hilabete geroago –1977. urteko irailaren 29an, hain zuzen– *Egin* jaio zen Hernani herrian. Lehenengo unetik *Eginek* “tabloid” formatoa eta offset imprimaketa-sistema hautatu zituen. Harrigarria suerta baliteke ere, *Eginen* lehendabiziko diseinuaren egilea –Luis Fernández de la Cancela– geroago *El Alcazarko* diseinuburua izan zen. *Eginen* maketak *El Paísena* hartu zuen eredutzat: 5 zutabeko pautu aukeratu zen, Times letra-mota egunkariaren elementu guztietan agertzen zen, letra makurra iritzizko artikuluetarako uzten zen, diseinu modularra, etab...

Agian, Fernández de la Cancelaren asmakizunik handiena, *Eginen* lehendabiziko orrialdea izan da. Portada honek 15 urte iraun digu. *Eginen* lehenengo orrialdea aztertzera koan Harold Evans diseinugile britainiarrak hauxe esaten zuen: «el diario *Egin* consigue a menudo titular hasta diez artículos sin que la portada parezca sobrecargada⁸». Egunkariaren azalak beti egitura berbera mantendu zuen 1992. urteko berdisseinua heldu arte.

Jaio zen mementuan *Eginen* neurriak 315 x 447 mm-koak ziren, hau da tabloide arrunt bat baino apur bat luzeago. Luzera hau 1980. urtean pitin bat moztu zen, 447 milimetrotik 420 milimetrora pasatuz.

15 urtetan zehar *Eginek* ez du ia aldaketa nabarmenik jaso. Aipamen bat besterik ez, 1989.eko apirillean bere tipografia % 85 estutu zen titularretan lekua irabazteko asmoz. Hainbesteko egonkortasunaren ondoren, 1992. urteko azaroaren 8an *Egin* kioskoetan agertu zen arras berrituriko irudi batekin. Hain zen ikusgarria aldaketa hau ezen Bartzelonako *La Vanguardiak* 1989. urtean burutu zuenarekin konparatua izan baita. *Eginen* diseinu berria sakonkiago aztertuko da artikulua honen azken atalean. Egunkaria berdisseinatu zenean *Eginen* salmentak 46.304 aletan kokatzen ziren OJDren arabera.

Bizkaian eta Gipuzkoan *Deia* eta *Egin* agertu ondoren, Nafarroan ere egunkari berri bat agertu zen bertako antzinako prentsarekin konpetitzeko asmoz. EAJ-PNVren inguruko talde batek *Navarra Hoy* kaleratu zuen 1982. urteko maiatzean. Bere jatorrizko diseinua Ricardo Bermejok egindakoa izan zen. Haatik, eta arazo ekonomikoak jasaten dituzten egunkari gehienetan gertatzen den bezala, *Navarra Hoyk* aldaketa ugari pairatu zuen bere irudian: 6 berdisseinu burutu ziren egunkari honetan bere bizitzako azken 10 urtetan.

Aipatutako arazo ekonomikoak zirela medio, 1990. urtean kazetaren langileak enpresaz jabetu ziren SAL bat osatuz. Zenbait iturriren arabera, 1993. urtean Grupo 16 delakoak egunkariaren akzioen kopuru bat erosi nahi bazuen ere, azkenean operazio hau ez zen gauzatu. Egunkariaren estuasun ekonomikoak areagotu ziren iazko azken hilabetetan, eta aurtengo

8. Evans, H., (1985): *Diseño y compaginación de la prensa diaria*. Gustavo Gili, 68. orr., Bartzelona

otsailean *Navarra Hoy* kioskoetatik desagertu zen. Kontutan eduki behar da kazetaren salmentak ez direla sekula ondo joan. Salmentak urriak zirela eta, 1987. urtean egunkaria OJDtik atera zen. Bere itxieraren momentuan, *Navarra Hoyren* salmenta seguraski ez zen 3.000 alera iristen.

Navarra Hoy izan zenaren diseinua aztertzen badugu, esan beharra dago bere neurriak 250 x 360 mm.koak zirela. Orrialde bakoitzak 10,4 zizeroko 5 zutabetan zatitzen zen. Iruñeko egunkariak Helvetica black deritzon familia erabiltzen zuen titular gehienetan. Kirol-orrialdeetako titularretan Helvetica makurra ikus zitekeen, Kulturen Times letra-mota eta Telebistan eta Erreportajeetan Garamond erabiltzen zen bitartean. Testuetan Times familiaz baliatzen zen egunkari hau.

Navarra Hoyk utzitako lekua betetzeko asmoz *Diario de Noticias* jaio zen iragan martxoan. Bere zuzendaria *El Mundotik* etorritako Fernando Mujika kazetari iruñearra da. Mujikaren iritziz, kazeta berria, batez ere, gazte eta profesionaleri zuzenduta dago: «Guk jende gaztea gureganatu nahi dugu, eta baita lanbide liberala duen jendea ere. Emakumezkoak eta unibertsitarietara ere arreta berezia eskainiko diegu. Berriz diot, egunkari batek era guztietako jendearentzat izan behar du. Bestela ez da egunkaria⁹.». Momentuz, ez dago egunkari berriaren salmentaren datu zehatzik, *Diario de Noticiasen* helburua 10-12.000 ale saltzea bazen ere.

1990.eko abenduan, Gerra ostean euskaraz idatzitako lehendabiziko

egunkaria jaio zen: *Euskaldunon Egunkaria*. Kazeta honek ez du errotatiba propiorik (*Eginen* instalazioetan inprimatzen baita) eta horrek *Egunkariaren* neurriak eta formatoa mugatzen ditu. Agerkari berriaren diseinua zehazteko beste zenbait egunkaritako profesionalekin talde bat sortu zen.

Maketaren egilea Garbiñe Ubeda izan zen eta bere proposamen gehienak mantendu ziren. Ez ordea, ekimen tipografikoak. 1990.eko uztailan kaleratu zen ale berezi batean Helvetica letra-mota erabili zen titularretan, baina geroago familia hau alde batera utzi zen. Azkenik, Garamond, XVI. mendeko letra bat, aukeratu zen *Egunkariaren* familia tipografiko nagusi bezala.

1991. urtean zehar egunkariaren mantxeta aldatu zen. Gorri kolorea gehitu zitzaion eta “negatiboz” “Egunkaria” hitza mantendu zen. *Euskaldunon Egunkariak* 289 x 420 milimetro ditu, 5 zutabeko pauta erabiltzen du, eta zutabe bakoitzaren zabalera 10 zizerokoa da. OJDren datuen arabera *Euskaldunon Egunkariaren* salmenta 11.143 alekoa izan zen 1992an.

Euskal Herriko prentsaren arloan agertu den azken berrikuntza *El Mundo del País Vasco* da. Madrilgo *El Mundo del siglo XXI-ren* Euskal Elkarte Autonomorako kaleratutako edizio hau 1991. urteko maiatzean jaio zen. *El Mundo del País Vascok* bere errotatiba propioa du eta Bilbon inprimatzen da. Bere ezaugarri guztiak Madrilgo *El Mundorenak* dira eta egunkari honetako Carmelo G.

9. Mujika, F., *Argia*. 1.480 zenbakiak. 35. orrialdea.

Caderot-ek egin zuen diseinua errespetatzen da arlo guztietan. *El Mundo del País Vasco* orrialde ugari Madrilan idazten eta maketatzen dira: “España” eta “Internacional” sekzio osoak, eranskinak, eta “Opini3n”, “Cultura”, “Sociedad”, “Economía” eta Telebistako zenbait albiste ere bai.

El Mundo beste egunkari gehienak baino zertxobait zabalagoa da, bere neurriak 300 x 400 mm direlarik. 5 zutabeko pauta du eta zutabe bakoitzak 11 zizero ditu. *El Mundoren* originaltasunik handiena familia tipografiko diferenteen konbinaketan datza. Horrela, orrialde bakoitzaren albiste nagusiaren titularra Helvetica letratan idazten da; bigarren mailako titularretan, berriz, Times letra erabiltzen da. Baliabide hau oso naharoa da Italia eta Estatu Batuetako egunkarietan.

Beste alde batetik, *El Mundo*, *La Vanguardiarekin* batera, aitzindaria izan zen infografiaren erabilpenean. 1991. urtean *El Mundok* Estatu espainiar osoan 131.626 ale saltzen zituen egunero.

Berdiseinu ikusgarri bat: Egin

Artikulu honetan aipatu den bezala, 1992.eko azaroaren 8an *Egin* berria agertu zen. Azken urteetan Europan egin diren berdiseinu ikusgarrienen artean inolako zalantzarik gabe koka daiteke *Eginen* kasua. Gauetik egunera, Hernaniko egunkariak goitik behera aldatu zuen bere itxura, 1989.eko urrian *La Vanguardiak* egin zuen bezala.

Kasu hauetan gertatzen den bezala diseinu berriarekin batera *Eginek* errotatiba berri bat martxan jarri zuen.

Makina berri honekin egunero 16 orrialde kolorez inprima daitezke. Diseinu berria zehazteko, talde berezi bat sortu zen. “Etxeko” talde hau izan zen azken finean egunkari berria prestatu zuena.

Diseinu berriaren ezaugarri orokorrak ondoko hauek dira:

- Kolorearen erabilpena, bai lehenengo orrialdean baita barneko eta gehigarrietako orrialdeetan ere.
- Lehenengo orrialdearen ikusgarritasuna.
- Mantxeta bertikalaren originaltasuna.
- Titular handiak erabiltzea.
- Estilo tipografiko diferenteak konbinatzea.
- Orrialde gehienetan albiste nagusiak 4 edo 5 zutabe betetzen ditu.
- Argazki handiak sartzen dira.
- Infografia agertzen da.
- Albisteetan testua murrizten da eta atal edo “zatidura” gehiago agertzen dira.
- Zuriak baliabide bezala erabiltzen dira.
- Orrialdeen egitura modularra da.

Eginen formato berriak 289 x 420 mm neurtzen ditu. Orrialdea 5 zutabetan zatitzen da, zutabe bakoitzak 47,6 mm dituelarik.

Egin zaharrean Times letra-mota ia elementu guztietan erabiltzen bazen, orain familia gehiago ere ikusten dira. Times-a titular nagusi eta testuetan mantentzen da. Bigarren mailako titularretan, berriz, Univers familia erabiltzen da. Kiroletako titularrentzako aukeratu den familia Franklin da. Iritzian, bestaldetik, Frutigerez titulatzten da. Azkenik,

Futura eta Egiptoar familiak zintetan erabiltzen dira.

Eginek lau gehigarri eskaintzen dizkie bere irakurleei astean zehar: Kiroldegin, astelehenetan; Gaztegin, ostiraletan; Telegin, larunbatetan; eta Igandegin, igandeetan. Suplementu hauek berezko diseinua dute eta

lauetan kolorea erabiltzen da. Gehigarri hauetan bestelako letra-motak sartzen dira, Garamond adibidez.

Egunkari berri hau gauzatzeko *Eginek* 1000 milioi inguru inbertitu ditu. Kopuru honen zatirik handiena errotatiba berriaren ordainketan erabili da.